## 117. Salmoa

**Etxegileak baztertutako harria,**
**berori bihurtu da giltzarria.**






Eskerrak Jaunari, ona da-ta,´
Haren maitasuna betikoa da-ta.
Hoba da Jaunagana jotea,
eta ez gizonakan uste on izatea.
Hoba da Jaunagana jotea,´
eta ez haundikiakan uste on izatea. R/.

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena,´
bedeinkatzen zaituegu Jaunaren etxean.
Zeu zara nire Jainko, esker onez beteten zaitut;
ene Jainko, goresten zaitut.
Eskerrak Jaunari, ona da-ta,´
Haren maitasuna betikoa da-ta. R/.